

Euskal Aditzari Begira

Agintera, baldintza eta aditz arazleak

Agintera

Baldintza

Aditz arazleak

EAB 9

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.
Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntza-corpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTzea

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal hizkuntza eta literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

EUSKAL ADITZARI BEGIRA **Agintera, baldintza eta aditz arazleak**

AURKIBIDEA

| | |
|---------------------|----|
| Agintera..... | 3 |
| Baldintza..... | 7 |
| Aditz arazleak..... | 11 |

IZENA:.....MAILA:.....

Agintera

Agintera, batez ere, aginduak emateko erabiltzen da.

| <u>aditzoina edo partizipioa</u> | <u>adizki perifrastikoa</u> | <u>adizki trinkoa</u> |
|--|---|---|
| Geldi egon! Ken hortik! Etorri hona! | Geldi egon zaitezte! Ken zaitez hortik! Etor zaitezte hona! | Zaude geldi! Zoazte hortik! Zatozte hona! |

KOLDO —Nerea **hartu** baloia, **eman** aurrera bi pausu eta **pasatu** Gorkari; hori egindakoan **joan** uztai azpira kontrarioak erakartzeko. Gorka, zuk **jaso** baloia eta **joan** hirukoaren marraraino, **egin** keinua eta **bidali** baloia Ikernerri; hori egindakoan **joan** kantxa erdira eta **eskatu** baloia. Zuk Ikerne bidea ikusten baldin baduzu, **sartu** eta **saiatu** saskiratzen; ez baduzu biderik antzematen, keinua **egin** eta **bota** baloia Danieli, ezkerreko hegalerara. Zuk Daniel **saiatu** hirukoa.

Goiko koadroan letra lodiz dauden partizipioak bihur itzazu perifrastiko eta idatzi beheko koadroan dagokien tokian.

—Nereabaloia,aurrera bi pausu etaGorkari; hori egindakoanuztai azpira kontrarioak erakartzeko. Gorka, zukbaloia etahirukoaren marraraino,keinua etabaloia Ikernerri; hori egindakoankantxa erdira etabaloia. Zuk Ikerne bidea ikusten baldin baduzu,etasaskiratzen; ez baduzu biderik antzematen, keinuaetabaloia Danieli, ezkerreko hegalerara. Zuk Danielhirukoa.

Aginteran NOR motako aditzek *edin* hartzen dute eta NORK motakoek *ezan*. Laguntzailearekin doanean, aditz nagusiak ez du aspektu-markarik hartzen.

- Agindu Karmeleri ontziak jasotzeko. _____
- Agindu lagunei zinemara joateko. _____
- Agindu Joni poliki ibiltzeko. _____
- Agindu Lideri ura loreei botatzeko. _____
- Agindu Anderri eta Joni makilak erretzeko. _____
- Agindu Joni loreak ekartzeko Karmeleri eta Lideri. _____

IZENA:.....MAILA:.....

Lehenengo eta hirugarren pertsonan, normalean, aginterako adizkien ordeztan, subjuntiboko adizkiak erabiltzen dira.

- KRISTINA** —**Goazen** etxera, Mikel eta Andoni itxaroten dauzkagu eta.
- SUSANA** —**Datozela** eurak kalera! Oso eguraldi ederra daukagu eta.
- KRISTINA** —Arrazoia daukazu. **Daudela** etxean, ez badute etorri nahi; honelako eguzki epelik gutxitan izaten da Gasteiz fresko honetan.
- SUSANA** —Play Stationarekin ibiliko dira; ez al zaizu inporta?
- KRISTINA** —**Dabiltzala** *play*arekin nahi beste gu «**playa**»ra joango gara.
- SUSANA** —Hondartzara! **Goazen! Goazen! Doazela** pikutara euren *play*-arekin.

Euskara mintzatuan, maiz, aditz nagusia eta laguntzailea hitz bakar batean elkartzen dira, adizki erdi trinkoak sortuz.

- KRISTINA** —Joan zaitetz dendara eta **ekarriozu** bi kilo tomate Edurneri.
- XABIER** —**Egizu** esandakoa lehenbailehen, eta zinemara joango gara.
- SUSANA** —**Emadazu** ogia niri eta **eramazu** ura mahaira.
- XABIER** —**Esaiozu** euriari ez erortzeko.
- KRISTINA** —Aspertzen hasia naiz; **esadazu** egia behingoz!
- SUSANA** —**Ekarriozu** ura ume gaixoari!
- XABIER** —**Eramaiezue** ordutegia gurasoei, galdu gabe.
- KRISTINA** —**Emadazu** musu bat, Ander.
- SUSANA** —**Ekardazu** aitzurra, baratzera noa lanera.
- XABIER** —**Entzuiozue** arretaz sendagileari.
- KRISTINA** —**Utziezue** liburu zerrenda, azken klaseetara ez dira etorri eta.
- SUSANA** —**Ekarriozu ura**, ez dizu nahita egin eta.

IZENA:.....MAILA:.....

Baldintza jokatu gabea

-(e)z gero

Bihurtu baldintzazko perpaus jokatu gabe.

Ahal badut, joango naiz.

Ahal izanez gero, joango naiz.

Dirua izango banu, erosi egingo nuke.

Beharrezko bada, ni neu gera naiteke.

Hau kentzen badugu, bidea libratuko dugu.

Baldintza jokatu gabea

ezik / ezean

Bihurtu baldintzazko perpaus jokatu gabe.

Autobusik ez badago, oinez joango naiz.

Berak ez badaki, inork ez daki.

Arin ez bagabiltza, trena galduko dugu.

Neuk ikusi ez banu, ez nukeen sinetsiko.

Baldintza jokatu gabea

-t(z)ekotan

Bihurtu baldintzazko perpaus jokatu gabe.

Egin behar baduzu, ongi egiten saiatu.

Ixilik egoten bazara, gera zaitezke, bestela ez.

Ez diozula inori kontatuko hitz ematen badidazu, kotatuko dizut.

Egin behar badut, neure erara egin nahi dut.

IZENA:

MAILA:

Gaur egun, aditz arazleak sortzeko bi bide dauzkagu.

Arazi: eginarazi, itxaronarazi, joanarazi, sentiarazi, gogorarazi...

Eragin: lo eragin, ihes eragin, negar eragin

Arazi

Esaldiko aditza arazle bihurtu eta berridatzi esaldia hiru aspektu-markekin.

Jon etorri da.

Jon etorrarazi dut.

Astero etorrarazten dut Jon.

Bihar etorraraziko dut Jon.

Musika horrek gazte garaia gogoratu dit.

Txarto zeuden ariketak errepikatu ditu.

Joango naizela agindu diot.

Eragin

Esaldiko aditza arazle bihurtu eta berridatzi esaldia hiru aspektu-markekin.

Jonek barre egin du.

Joni barre eragin dio.

Joni astero barre eragiten diot.

Bihar Joni barre eragingo diot.

Musika entzun eta ihes egin du zakurrak.

Infusioa hartu eta lo egin du, gozo-gozo.

Umeak negar egin du.

Egin arazi

Nik aginduta egin behar izan du.

Lo egitera behartu dut.